

OBSERVACIONES

Una vez entregados los documentos, las familias recibirán un email confirmando que su hijo/a ha quedado inscrito.

Días antes del comienzo estarán disponibles en la web los recorridos definitivos de los autobuses, el programa de la primera semana y tendremos una reunión informativa sobre el campamento. En la misma, presentaremos a los monitores y entregaremos a los participantes la tarjeta de autobús que deberán llevar visible durante todo el periodo.

CONTACTO

Por email: summercamp@colegiourdaneta.com

Teléfono: 608 05 11 34, a partir de mayo, (lunes a jueves, de 13:00 a 15:00).

Durante todo el período del Summer Camp podrán contactar con nosotros por medio del teléfono y aclarar cualquier duda o aclarar consultas.

TARIFAS GENERALES

TARIFAS SUMMER CAMP Y UDALEKU 2025				
	ACTIVIDADES ALUMNOS	ACTIVIDADES NO ALUMNOS	COMEDOR	AUTOBÚS
1 SEMANA	165 €	255 €	41 €	60€ (2 semanas)
2 SEMANAS	265 €	355 €	82 €	
3 SEMANAS	350 €	425 €	123 €	110€ (4 semanas)
4 SEMANAS	420 €	495 €	164 €	

*Si se prorroga una vez comenzado el campamento, se abonará esta prórroga como una nueva inscripción.



SUMMERCAMP 2025 LOIU INFORMAZIO OROKORRA

Urdaneta ikastetxeko kanpamentu hirueleduna 2020tik 2022ra bitartean jaiotako haurrentzat da. Urdaneta ikastetxea Loiuko gure instalazioetan dago. Bertan adin horietako umeentzako gela bereziak, igerilekua, atletismo-, futbol- eta saskibaloi-pista, parkeak eta zelaiak ditugu. Hemen txikiek udaz gozaten dute eta aldi berean ingeles eta euskara maila hobetzen dute modu ludikoan. Eskolako ikasleek eta beste ikastetxe batzuetako ikasleek eman dezakete izena udalekuetan.

HELBURUA

Summercampen helburua ingelesa eta euskara modu espontaneoan praktikatzea da, elkarrekiko harremanak eta haurren adinera egokitutako giza balioak sustatuz.

Zentroko langileen ikuskaritzapean, jarduera ludikoak eskaintzen zaizkie parte-hartzaileei. Jarduera horien bidez, ingelesaren eta euskararen erabilera sustatzen da ikaskideekin harremanak izateko.

Horretarako, eskura ditugun baliabide guztiak baliatzen ditugu, hala nola elaborazio propioko materialak, zentroko kirol-instalazioak eta ikus-entzunezko baliabideak, inguratzen gaituen ingurune naturalaren onurak ahaztu gabe.

HARTZAILEAK

2 urteko ikasgela, HHko 1. eta 2. mailetako haurrak.
2022tik 2020ra bitartean jaiotako ikasleak.

ANTOLAKETA

Taldeak egonkorak dira eta adinak kontuan hartuta eratzen dira.

Talde bakoitzak erreferentziazko monitore bat eta laguntza-langile partekatua izango ditu.

Edozein eskakizun berezi (taldearen lehentasuna, besteak beste) inskripzio-orrrian adierazi behar da.

HIZKUNTZAK

Ingelesa eta euskara.

Ahozko adierazpena sustatzen dugu jolasen, ipuinen, antzerkien eta abestien bidez.

JARDUERAK

Sustatzen diren eguneroko jarduerak izaera ludikoan oinarritzen dira, haurrak gustura eta parte hartzeko gogoz sentituko direla ziurtatuz, egiten duten jardueraren protagonista direla sentituz eta ingelesa modu naturalean erabiliz. Abestien, jolasen, psikomotrizitatearen, antzerkiaren eta abarren bidez egiten dugu.

Goiz erdian, aperitibo osasungarri bat eskainiko diegu, beraiek prestatuko dutena (egoera aprobetxatuz hiztegi berria ikasteko), eta, ondoren, kirol-lehiaketak, xaboi-ponpak, pistolak eta ur-puxikak, kaleko jolasak eta abar antolatzen ditugu.

Bi urteko ikasgela egin duten ikasleek (2022an jaiotakoek) atsedean hartzen dute edo siesta txiki bat egiten dute horretarako prestatutako gelan bazkaldu ondoren. Horretarako behar bezala izendatutako mantatxo edo zaku bat ekarri beharko dute.

Astero, 2020an eta 2021ean jaiotako hurrek igeriketa saio bat izango dute Loiuko ikastetxeko igerilekuan, begiraleen eta irakasle espezialisten begiradapean eta segurtasun neurri egokiekin. Kanpamentuko haur guztiek (bi urtekoak barne) igerileku txikiak eta ur-jolasak izango dituzte ikastetxeko patioan.

Irteerak egiten ditugu inguruan, hurrek inguruko parkeekin esperimenta eta goza dezaten.

DATAK

Udalekua ekainaren 23an (astelehena) hasi eta uztailaren 18an (ostirala) amaituko da. Udaleku osorako edo asteka izena emateko aukera dago.

ORDUTEGIA (hiru aukera)

A. Autobusa eta jantokia:

Ikasleak biltzea geltokietan. Autobusa 08:30ean irtengo da lehenengo geltokitik. (Geldialdiak inskripzioa egitean aukeratu ahal izango dira).

Etxera itzulera. Autobusa 15:30ean irtetzen da eskolatik.

Menua gurasoen eskura egongo da kanpamentuaren hasierako web orrian.

B. Autobusa ez, jangela bai:

Sarrera: sartzeko ordutegia malgua izango da 09:00etatik 09:30era bitartean. Haurtzaindegi zerbitzua ere badago 08:00etatik aurrera.

Bilketa: irteera ordutegia malgua izango da 15:00etatik 15:30era toki berean. Menua gurasoen eskura egongo da kanpamentuaren hasierako web orrian.

C. Autobusik ez eta jantokirik ez:

Sarrera: sartzeko ordutegia malgua izango da 09:00etatik 09:30era. Haurtzaindegi zerbitzua ere badago, goizeko 08:00etatik aurrera.

Bilketa: Irteera ordutegia 13:00etan izango da zentroan bertan.

Jantoki-zerbitzua ikastetxeko ohiko instalazioetan egingo da.

INSKRIPZIOA FORMALIZATZEA

Izena emateko orria bete eta web bidez bidali. Jaso eta berrikusi ondoren, familiak emandako harremanetarako postara bidaliko da dagokion ordainketa egiteko kontu-zenbakia.

Garrantzitsua: diru-sarreraren kontzeptuan, kanpamentuan inskribatutako haurraren izena agertu behar da.

Gainera, bankuko abonu-agiriaren kopia eta Osakidetzaren txartelaren kopia bidali beharko dira helbide honetara: summercamp@colegiourdaneta.com

Ordainketa egin ondoren, posta elektronikoko bat jasoko duzu izena behar bezala eman duzula baieztatzeko.

Zalantzarik izanez gero, jar zaitez gurekin harremanetan.

INSKRIPZIOA EZEZTATZEA

Epealdia hasi baino gutxienez hamabost egun lehenago jakinarazten bada (egutegiko egunak), sartutako zenbatekoaren %75 itzuliko da. Adierazitako aldiaren ondoren jakinarazten bada, sartutako zenbatekoaren %50 itzuliko da.

Summer camp hasi ondoren, ez da inolako zenbatekorik itzuliko, ezinbesteko arrazoiengatik izan ezik (lesioa, gaixotasuna...) eta medikuaren egiaztagiria aurkeztuta. Kasu horretan, ordaindutako zenbatekoaren %50 itzuliko da, justifikatutako absentzia-aldia kontuan hartuta.

AUKERAKO ZERBITZUAK

Hurtzaindegia (08:00etatik aurrera) 25€ astean.

OHARRAK

Dokumentuak entregatu ondoren, familiak mezu elektronikoko bat jasoko dute, seme-alaba inskribatuta dagoela baieztatzeko.

Hasi baino egun batzuk lehenago, webgunean autobusen behin betiko ibilbideak, lehenengo asteko egitaraua eta kanpamentuari buruzko informazio-bilera izango ditugu. Bertan, monitoreak aurkeztuko ditugu eta parte-hartzaileei autobus-txartela emango diegu. Txartel hori ikusgai eraman beharko dute denbora-tarte osoan.

KONTAKTUA

Emaila: summercamp@colegiourdaneta.com

Telefonoa: 608 05 11 34, maiatzetik aurrera (astelehenetik ostegunera, 13:00etatik 15:00etara).

Summer Campeko denboraldi osoan zehar gurekin harremanetan jarri ahal izango dira telefonoaren bidez eta edozein zalantza argitu edo kontsultak argitu ahal izango dira.

TARIFA OROKORRAK
SUMMER CAMP ETA UDALEKU 2025 ERAKO TARIFAK

SUMMER CAMP ETA UDALEKU 2025 ERAKO TARIFAK				
	IKASLE DIRENENTZAKO JARDUERAK	IKASLE EZ DIRENENTZAKO JARDUERAK	JANTOKIA	AUTOBUSA
ASTE 1	165 €	255 €	41 €	60€ (2 aste)
2 ASTE	265 €	355 €	82 €	
3 ASTE	350 €	425 €	123 €	110€ (4 aste)
4 ASTE	420 €	495 €	164 €	

* Kanpamendua hasi ondoren luzatzen bada, luzapen hori izen-emate berri gisa ordainduko da.